


# LEHEN HEZKUNTZA GRADUA

## Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatea



## I. MODULUA IRAKASLE ZEREGINA

2019/20 ikasturtea



HEZKUNTZA, FILOSOFIA  
ETA ANTROPOLOGIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA  
Y ANTROPOLOGÍA

**IRAKASLETZA ERAIKINA: OÑATI PLAZA 3, DONOSTIA**

## AURKIBIDEA

---

1. Sarrera.....	3
2. Konpetentziak.....	4
2.1. Graduako konpetentziak.....	4
2.2. Lan modularreko konpetentziak.....	5
3. Taldearen ezaugarriak.....	6
4. Bestelako oharrak.....	6
5. Lan gidatua.....	7
5.1. Egin beharra.....	7
5.2. Gidoia.....	7
5.3. Arduradunak eta kronograma.....	9
5. Ebaluazioa.....	11
1. Eranskina: Lehen jarduera fitxa.....	14
2. Eranskina: Bigarren jarduera fitxa.....	17
3. Eranskina: Moduluaren ebaluazio orria.....	19
4. Eranskina: Moduluaren laburpen orria.....	20

## 1. SARRERA

Graduko titulazioetan irakasgai bakoitzak bere gaitasun zehatzak ditu, baina horiez gain, zehar-gaitasunak ere badaude, irakasgai guztiekin lotura dutenak.

Lehen Graduko lehen lauhileko honetan, Irakasle Zeregina moduluko bost irakasgaien artean proiektu bat garatu behar dute ikasleek taldean:

Komunikazio Gaitasunaren Garapena I			
Hezkuntzaren Soziologia - Sociology of Education	Hezkuntzaren Teoria eta Historia	Irakasle Funtzioa	Garapenaren Psikologia Eskola Adinean

Proiektu honek bost irakasgaietako jakintzak integratzea eskatzen du, idatzizko txosten batean bildurik.

Komunikazio Gaitasunaren Garapena I irakasgaiak ekarpen instrumentala egiten dio moduari, hau da, testu akademikoak ulertzea eta sortzea; hori adierazteko eman zaio goiko irudian duen lekua. Gainontzeko irakasgaien ekarpena diziplina horien edukiekin lotuta dago.

### MODULUKO IRAKASLEAK

***Garapenaren Psikologia Eskola Adinean: Lorena Revuelta eta Lorea Azpiazu.***

***Hezkuntzaren Soziologia - Sociology of Education: Nekane Larrañaga eta Mikel Olazaran.***

***Hezkuntzaren Teoria eta Historia: Pello Jauregi.***

***Irakasle Funtzioa: Leire Ugalde eta Justo Bereziartua.***

***Komunikazio Gaitasunaren Garapena I: Amaia Serrano, Izaro Arroita, Garbiñe Bereziartua eta Borja Ariztimuño.***

## 2. KONPETENTZIAK

### 2.1. GRADUKO KONPETENTZIAK

Beheko taulan ikus daitezke Lehen Hezkuntzako Graduaren konpetentzietatik zein diren Irakasle Zeregina modulu honi dagozkionak: beren definizioa, batetik, eta konpetentzia horiek modu eraginkorrean garatzeko zehaztutako deskriptoreak, bestetik.

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUAREN KONPETENTZIAK	DESKRIPTOREAK
<b>G008.</b> Harreman kritiko eta autonomo bat edukitzea jakintzei, balioei eta gizarte-erakunde publiko nahiz pribatuei dagokienez.	PENTSAMENDU KRITIKO ETA AUTONOMOA
<b>G010.</b> Irakaskuntza-lana berritzeko eta hobetzeko ikasgelan egiten diren praktiken inguruan gogoeta egitea: Ikaskuntza autonomorako eta lankidetzazkorako ohiturak eta trebetasunak eskuratzea eta ikasleen artean hori sustatzea.	PRAKTIKARI BURUZKO HAUSNARKETA
<b>G011.</b> Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ezagutzea eta ikasgeletan aplikatzea. Ikaskuntzari, heziketa herritarrari eta kultura-aberastasunari lagunduko dion ikus-entzunezko informazioa bereiziz hautatzea.	DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIOA AUKERATzea (IKT)
<b>G012.</b> Lehen hezkuntzako ikastetxeei eta bertako profesionalei eragiten dieten oinarrizko konpetentziak eta egungo gizartean hezkuntzak betetzen duen eginkizuna eta honek dituen aukerak eta mugak ulertzea. Kalitatea hobetzarren hezkuntza-zentroetan aplikatu daitezkeen ereduak ezagutzea.	HEZKUNTZA-ZENTROAREN EGINKIZUNAK: HOBETZEKO PROPOSAMENAK
<b>G013.</b> Euskara eta gaztelania, eta gutxienez, atzerriko beste hizkuntza bat menderatzea, hizkuntza egoki eta zuzen sortzeko eta ulertzeko gaitasuna erakustea bere lanbidea hizkuntza anitzeko hezkuntza-testuinguruan gauzatu ahal izateko, betiere, hizkuntzen nahiz kulturen dibertsitatea errespetatzeko jokabideak garatuz.	KOMUNIKAZIO JARDUERAK

## 2.2. LAN MODULARREKO KOMPETENTZIAK

---

### **IRAKASLE ZEREGINA MODULUAREN BERARIAZKO KOMPETENTZIAK**

1.- Hezkuntza komunitatearen nahiz gizarte inguruneko edo irakaskuntza laneko arazo eta kezketatik abiatuz, gai horien inguruan galderak eta hipotesiak formulatzea eta elkarlanean ordenatzea. G010

2.- Hezkuntzaren eremuko informazio iturrietan eta dokumentuen datu baseetan sartuta, gaiei dagozkien edukiak jakin-minez bilatzea eta irizpidez hautatzea. G011

3.- Hezkuntzaren alderdi psikologiko, pedagogiko eta soziologikotik begiratuta, ideiak aukeratzea, ikaskideen artean osatzea eta berriak eraikitzea aipaturiko ezagutza arloen artean loturak eginez. G012

4.- Lehen Hezkuntzaren esparruko aztergai diren arazoak ezagututa, irakasle zereginen inguruko teoriak adibide zehatz eta errealekin lotzea, eta esperientzia pertsonalen sintesia eginez, patroi abstraktu edo kontzeptu batzuk ahalegintzea ateratzen. G008

5.- Oinarrizko hezkuntzaren arloko informazioa hartu eta nor bere diskurtso propio, zehatz eta koherentea aurkeztea, euskarazko ahozko eta idatzizko azalpenen bidez, informazio horien egileen mezuak argi transmitituz. G013

### 3. TALDEAREN EZAUGARRIAK

---

Taldearen ezaugarriak honako hauek dira:

- Taldekideen kopurua 4koa izango da. 3ko taldeak salbuespen gisa onartuko dira soilik.
- Koordinatzaileak, taldeak osatuko ditu eta **2019/09/20an Irakasle funtzioko irakasleak ikasleei jakinaraziko die talde bakoitzaren partaideak zeintzuk diren.**
- Taldekide bakoitzak lanetan parte hartzeko konpromisoa adieraziko du, era honetara ebaluazio jarraitua egin ahal izateko. Konpromiso horri erantzutea ezinbestekoa da taldean jarraitzeko. Arazoren bat sortuz gero, hilabeteko epea dago ebaluazio mota hau bertan behera uzteko.

### 4. BESTELAKO OHARRAK

---

- Ikasleek irakasleren batekin **dilanaren inguruan hitz egiteko bildu nahi badute, klase orduetatik kanpo izango da**, irakasgaien presentzialtasuna errespetatuz.
- Behin taldeak osatuta, **diziplina desberdinetako irakasle guztiek hartuko dute jarduera fitxen ardura**, taldearen aurrerapenean laguntzeko. Edonola ere, irakasle guztien laguntza jasoko da prozesuan zehar eta irakasle bakoitzak jarduera gehigarriak eta propioak egingo ditu bere irakasgaietan zehar dilan honetako eginkizunean laguntzeko helburuarekin.
- Modu digitalean bidaltzen diren **artxibo guztien izenean dilanean esleitutako zenbakia eta Lehen Hezkuntzako talde zenbakia adieraztea ezinbestekoa izango da**. Arxiboa izendatzeko hurrengo adibidea kontutan harturik:

Dilanaren taldea:1,2,3,4,... (Lehen Hezkuntzako taldea: 31 edo 32). Adb.: 1(LH31).
---

## 5. LAN GIDATUA

---

### 5.1. EGIN BEHARRA

---

Modulu honetan ikasleak hurrengo galderetatik abiatuko dira: **“Zein da nire ametsetako eskola? Nolakoa da niretzat irakasle on bat?”**. Galdera hauen inguruan hausnartzeko eta eztabaidatzeko aukera izango dute eta beraien ikuspuntua helarazi eta partekatuko dute diskurtso propio bat osatuz (lehen jarduera fitxa).

Ondoren, beraien ametsetako eskolaren inguruko ideiak dituztela eta irakasle on baten irudiaren inguruan hausnartu dutelarik, gustuko eskola horretara iristeko zailtasun desberdinak detektatu egin beharko dituzte; eta berdin egingo dute irakasle irudiarekin. **“Zein oztopo daude nik amestutako eskola hori gauzatzeko edo horrelako eskola utopiko batera iristeko?”** eta **“zein zailtasun daude irakasle on batean bihurtzeko?”** galdetu egin beharko diote beraien buruei. Galdera hauen inguruko zailtasun edo oztopo desberdinak detektaturik, hauetatik bi gustukoenak aukeratuko dituzte. Elkarrekin lotu eta irakasgai desberdinetan landutako kontzeptu desberdinekin erlazionatu beharko dituzte. Lan honetako atal honek ideien eta kontzeptuen loturak modu koherentean egitea, argudiaketa sakona lortzea eta sormena azaleratzea eskatzen ditu (bigarren jarduera fitxa).

Hortaz, ikasleek denbora izango dute beraien ideiak mamitzeko eta irakasgai desberdinetatik informazioa jasotzeko. Prozesuan zehar ikasleei sortzen zaizkien zalantzak dagokion irakasle espezialistari zuzenduz argitu beharko dituzte. Honela, beraien diskurtsoa osatzen joango dira behin betikoa lortu helarazi arte.

### 5.2. GIDOIA

---

Lanak 6-7 orrialdeko testu koherentea idaztea eskatzen du, ez da inondik inora informazio-bilduma hutsa izango. Lehenik eta behin, eskola eta irakasle funtzioaren inguruan hausnartuko dute eta ikasle talde bakoitzak hauen inguruan sortzen diren oztopoak edo zailtasunak formulatuko dituzte; gero, sortutako oztopo horiek irakasgaietako informazio adierazgarriekin lotuz. Bukatzeko, taldeak azken hausnarketa egingo du.

Hau guztia, jarduera prozedura jakin bat jarraituz egingo da (3. Eranskina), eskola orduetan eta eskolatik kanpo. Eskolako ordu batzuetan irakasleen laguntza ere izango da.

Sortu behar den testuak lan akademikoen oinarritzko ezaugarriak bete behar ditu: zehaztasuna, koherentzia, eduki arrazoituak, informazio-iturrien erreferentziak eta hiztegi teknikoak.

Idatzizko txostenak atal hauek izango ditu:

### 1.- Identifikazioa (azala):

- a. Izenburua (eta azpi-izenburua, baldin badauka).
- b. Taldearen izena eta ikasgelaren kodea, adibidez: 31(ga1), 31(ga2)...
- c. Taldekideen izen-deiturak, ofizialki agertzen diren eran.
- d. Data.

**2.- Lanaren muina (6 orrialde):** ikasle-taldeak erabakiko du nola egituratu txostena. Atal nagusiak ardatz hauen inguruan osatuko dira.

- a. Ametsetako eskola eta irakasle funtzioaren bi oztopo/zailtasunen azalpena.
- b. Bi zailtasun hauek irakasgaietako informazio adierazgarriekin lotzea.
- c. Bi zailtasun hauek elkarrekin lotzea.

Dena dela, lan osoa burutzeko, "AZKENEKO IDAZLANA ELABORATZEKO" orrian (4. Eranskina) agertzen diren jarduera guztiak egin beharko dira, banan bana eta hurrenez hurren. Gainera, irakasgai desberdinetan jarduera espezifikoak egingo dira idazlan hau burutzeko laguntza eskainiz.

### 3.- Iturriak:

- a. Erreferentzia bibliografikoak: APA arauen 6. argitalpenari jarraituz egingo dira.
- b. Bestelako iturriak: gaia kokatzeko edo osatzeko erabili diren bestelako iturriak hemen erreferentzia daitezke (filmak, liburuak, ipuinak..).

**4.- Eranskinak:** moduluaren ebaluazio orria beteta gehituko da (gida honetako 3. Eranskina).

### EZAUGARRI OROKORRAK:

- Letra Arial 11 izango da eta lerroarteko xumez (1,0 koa). Paragrafo arteko banaketa aurreko eta atzeko 6 ptko tartea izanik.
- Idatzizko txostenaren azken bertsioa komunikazioko irakasleari helaraziko zaio pdf fitxategi elektronikoan, **2019ko abenduaren 10ean**. EPE HAU EZIN DA LUZATU, EZINBESTEKOAK DA BETETZEA.
- Modu digitalean bidaltzen diren artxiboen izenean dilanean esleitutako zenbakia eta Lehen Hezkuntzako talde zenbakia adieraztea ezinbestekoak dira.



### 5.3. ARDURADUNAK ETA KRONOGRAMA

DILAN moduluko lanerako, lau rol finkatu dira. Hauek dira rol bakoitzaren zeregin nagusiak eta bete beharreko kronograma:

#### KOORDINATZAILEA

NOIZ	ZEREGINA
2019/09/18rako	Lan taldeak osatzea eta irakasleei talde fitxak bidaltzea.
2019ko/12/2ko astean	Moduluko ikasleen ebaluazioa antolatzea (ebaluazio bikoteak antolatzea eta bikote bakoitzak ebaluatuko dituen ikasle-taldeak esleitzea).
2019/12/16ko astean	Ebaluazio bikote kideek emandako kalifikazioak jasotzea.

#### IRAKASLEAK

NOIZ	NORK	ZEREGINA
2019/09/9ko astean	Irakasle funtzioko irakasleak	Ikasleei gida aurkeztea eta lehenengo jarduera fitxako lehenengo puntua egiteko denbora eskaintzea.
2019/09/18	Irakasle guztiak	Talde fitxak jasotzea.
2019/09/20	Irakasle funtzioko irakasleak	Ikasleei taldeen fitxa bidaltzea.
2019/10/04	Hezkuntzaren teoria eta historiako irakasleak	LEHEN JARDUERA FITXA modu digitalean jasotzea eta gainontzeko irakasleei bidaltzea.
2019/11/15	Hezkuntzaren soziologiako irakasleak	BIGARREN JARDUERA FITXA modu digitalean jasotzea eta gainontzeko irakasleei bidaltzea.
2019/12/10	Komunikazio gaitasunaren garapenerako irakasleak	BEHIN BETIKO TXOSTEN IDATZIA modu digitalean jasotzea eta gainontzeko irakasleei bidaltzea.

Nahiz eta jarduera fitxen kudeaketa diziplina zehatz bateko irakaslek hartzen duten, diziplina desberdinetako irakasleek hartuko dute jarduera fitxen ardura, taldearen aurrerapenean laguntzeko eta ikasle taldeek gainerako irakasleen aholkularitza ere bilatuko dute. Edonola ere, irakasle guztien laguntza jasoko da

prozesuan zehar eta irakasle bakoitzak jarduera gehigarriak eta propioak egingo ditu bere irakasgaian zehar dilan honetako eginkizunean laguntzeko helburuarekin.

## IKASLE - TALDEA

Ikasle-taldearen ardura kronograma honetako zereginak betetzea izango da.

NOIZ	ZEREGINAK
2019/09/09ko astean	Gidaren aurkezpena etortzea eta lehen jarduera fitxaren lehenengo puntua betetzea.
2019/10/04	LEHEN JARDUERA FITXA (ikuspuntua izeneko) Hezkuntzaren teoria eta historiako irakasleari formatu digitalean ematea (4 orrialde).
2018/11/15	BIGARREN JARDUERA FITXA (ideiak eta loturak izeneko) Hezkuntzaren soziologiako irakasleari modu digitalean ematea (4 orrialde).
2019/12/10	BEHIN BETIKO TXOSTEN IDATZIA (6 ORRIALDE), Komunikazio gaitasunaren garapeneko irakasleari modu digitalean ematea.
2019/12/16ko astean	Ebaluazio bikote kideak esandako egunean eta orduan feedback saiora etortzea.

## EBALUAZIO BIKOTE KIDEAK

NOIZ	ZEREGINA
2019/12/2ko astean	Koordinatzaileak ebaluazio bikote kideak osatu eta bikote bakoitzak ebaluatu behar dituen taldeen esleipena finkatu ondoren, ontzat ematea.
2019/12/10	Ebaluatu behar diren taldeen txostenak komunikazio irakasleen eskutik jasotzea.
2019/12/10etik - 16ra	Ikasleen behin betiko idatzizko txostena ebaluatzea.
2019/12/16tik - 18ra	Ikasleei azkeneko txosteneko behin behineko nota jakinaraztea eta feedbacka ematea.
2019/12/20	Koordinatzaileari taldeen kalifikazioak, eta ikasleen izenak banan bana ipinita, bidaltzeko azken eguna.

## 5. EBALUAZIOA

---

Moduluko lana ebaluatua izateko, ezinbestekoa da ikasgelako jardueretara etortzea. Asistentzia kontrolatuko da eta gutxienez aurrez aurreko eskola orduen % 75era etorri beharra dago.

Moduluko lanean parte hartu ahal izateko, nahitaezkoa da, gutxienez, modulu horretako 3 irakasgaietan matrikulatuta egotea.

Lan honek irakasgai bakoitzaren kalifikazioaren % 20ko balioa du. Hortaz, irakasgai bakoitzak 2 puntu eta 1,2 kreditu eskaintzen dizkio lan honi.

Irakasle bakoitzak erabakiko du noiz eta nola emango dituen jarduera fitxen feedbacka. Jarduera fitxak ez dira kalifikagarriak.

Bakarrik amaierako lana kalifikatuko da eta ebaluazio bikoteak kalifikazioaren ardura hartuko du. Horretarako, gidan eskuragarri dagoen errubrika erabiliko dute (12 or.).

Ebaluazio bikoteak, lauhileko horretako irakasleek osatuko dituzte.

Diziplinarteko lan hau gaindituko ez balitz, irakasgai bakoitzak erabakiko luke zein izango litzatekeen horren ondorioa irakasgaiaren ebaluazioan.

Testuaren edukian plagioa ikusiko balitz, deialdi horretako moduluko lana gainditu gabe geldituko litzateke.

Idatzizko behin betiko txostena aurkeztean, diziplina desberdinetako irakasleek osatutako "ebaluazio bikote kideak" sortuko dira eta beraien ikasleak izandako taldeak esleituko zaizkie, hauen ebaluazioaren ardura hartuko dutelarik. **2019/12/19an klaseak eten egingo dira** eta ebaluazio bikoteko kide bakoitzak zuzendutako lan taldeen erdiarekin bildu beharko du. Honela, kalifikazioa helaraziko die eta lanaren feedbacka emango die.

Ikasleei behin behineko kalifikazioa feedbackarekin batera emango zaie. **Erreklamazioen bat egin nahi bada, ikasleek ebaluatuta izan diren ebaluazio bikotearengana jo beharko dute 2019ko abenduaren 20an 10etatik 12ak bitartean.** Taldeak erreklamazioaren justifikazioa argudiatu egin beharko du, kalifikazioaren desadostasunaren zergatia azalduz. Ebaluazio bikoteak, erreklamazioa dilana osatzen duten irakasle klaustroan adieraziko dute; eta klaustroak erreklamazioa aztertuko du. Klaustroaren erabakia ebaluatutako bikote talde berak jakinaraziko die ikasleei **2020/01/06ko asteen.**

IDATZIZKO TXOSTENA EBALUATZEKO ERRUBRIKA (irakasgai guztien kalifikazioaren %20a)

	EDUKIA	HIZKUNTZA ETA FORMA
BIKAIN 9-10	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanak erabiltzen ditu irakasgaietatik hartutako ideiak, eta oso argi antzematen da ideia horiek guztiek zer ondorio dituzten edo zer nolako eragina duten "irakaslearen eta eskolaren zereginari buruzko" ikuspegian.</li> <li>- Ikusten da lanak ideia desberdinak elaboratu eta uztartu dituela mezu, ideia edo ikuspegi nagusi bat transmititzeko. Ideia nagusi horrek egituratzen du testu osoa, testuaren hezurdura eta ardatza da. Ideia nagusi hori uneren batean (sarreran, testuan zehar, ondorioetan) formulatzen da modu zehatz eta landuan (argumentuak, osagaiak, loturak, nabardurak...). Testua oso modu koherentean josita dago.</li> <li>- Autoreen ideiak eta kontzeptuak erabiltzen dituzte, baina adierazpide propioen bidez eginda. Ez da kopia ez parafasia. Beren hitzetan ari dira, baina beste batzuen kontzeptuak ere erabiltzen dituzte. Lanean autoreetatik jasotako kontzeptuen jatorria errespetatzen da, ideiak nondik edota norengandik jaso diren adieraziz. Lotura horietatik kontzeptu edo ikuspegi berrietara iritsi dira.</li> <li>- Iritziak ematerakoan, modua bilatzen dute kontzeptuen eta hitz garrantzitsuen esanahia zehazteko, eta baieztapenen atzetik egon daitezkeen argudioak aletzeko. Zehaztasun handia agertzen da idatzian zehar.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lana jarraian irakurri eta haria galdu gabe ongi ulertzen du irakurleak.</li> <li>- Hurrengo ezaugarrietatik bi edo bi akats baino gutxiago aurkezten du testuak honako elementu hauetan: kohesio elementuak, deklinabidea, aditzaren komunztadura eta ortografia.</li> <li>- Oso egitura argia, behar bezala erreferentziatuta, adierazitako formatuan eta ongi antolatuta dagoen testua aurkezten dute.</li> </ul>
Oso ondo 7-8	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanak erabiltzen ditu irakasgaietatik hartutako ideiak, eta gehienetan antzematen da ideia horiek guztiek zer ondorio dituzten edo zer nolako eragina duten "irakaslearen eta eskolaren zereginari buruzko" ikuspegian, baina batzuetan lotura ez da ikusten, edo lauso eta orokorra da.</li> <li>- Antzematen da lanak baduela ideia nagusia eta zehatza testuari koherentzia ematen diona, baina tarteka badira pasarte edo atal batzuk ideia nagusiarekiko lotura ahul, azaleko edo zirkunstantziala baino ez daukatenak. Nolabait, elkarren ondoan jarritako pasarteak dirudite baina lotura sakon argirik gabe. Nabaritzen da testuaren koherentzia zainduta dagoela.</li> <li>- Tarteka antzematen da autoreen ideiak eta kontzeptuak modu literal samarrean erabiltzen dituztela, norbere pentsamenduaren eta hitzen iragazkitik pasatu gabe. Tarteka ere antzematen dira ideiak ez ezik, paragrafo batzuk ere hartu eta itzuli edo parafraseatu egiten dituztela, baina kopurua ez da handia: halakoak salbuespenak dira. Ez dute beti aitortzen norenak diren (edo nondik hartuak izan diren) hainbat kontzeptu edo ideia.</li> <li>- Batzuetan antzematen da beren iritziak modu borobil eta orokorrean ematen dituztela, kontzeptu nagusien esanahia azaltzeko tarterik hartu gabe, edo baieztapenari sendotasuna emateko argudioak bilatu gabe. Zehaztasun nabaria agertzen da idatzian zehar.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakurleak gutxitan galtzen du haria, baina bigarren irakurraldia egin eta berreskura dezake kontakizunaren haria.</li> <li>- Hurrengo ezaugarrietatik lau edo lau akats baino gutxiago aurkezten du testuak honako elementu hauetan: kohesio elementuak, deklinabidea, aditzaren komunztadura eta ortografia.</li> <li>- Egitura argia, behar bezala erreferentziatuta, adierazitako formatuan eta antolatuta dagoen testua aurkezten dute.</li> </ul>

<p>Ondo 5-6</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanak irakasgaietatik hartutako ideiak erabiltzen ditu, baina maiz samar ez da antzematen argi horiek guztiek zer ondorio dituzten edo zer nolako eragina duten "irakaslearen eta eskolaren zereginari buruzko" ikuspegian. Batzuetan lotura ikusten da baina oso lauso edo orokorra da.</li> <li>- Antzematen da testuaren atzean badagoela foku edo ideia nagusia, baina orokorra eta landu gabea izateko joera du. Era berean, ugari dira pasarteak ideia nagusiari oso modu axalean lotzen zaizkionak. Testuaren koherentzia egokia da.</li> <li>- Ikusten da autoreen ideiak eta kontzeptuak norbere hitzetan azaltzeko ahalegina egiten dutela, tarteka behinik behin, baina, halere, oraindik nabaria da informazioa entzun edo irakurri bezala idazteko joera. Maiz samar ahalegin bakarra da itzultzea edota testuak egokitzea hitz batzuk aldatuta.</li> <li>- Maiz samar ematen dituzte iritziak modu borobil eta orokorrean, kontzeptu nagusien esanahia azaltzeko tarterik hartu gabe, edo baieztapenari sendotasuna emateko argudioak bilatu gabe. Zehaztasun falta nabaritzen da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakurleak maiz galtzen du haria, baina normalean bigarren irakurraldia eginda eskuratzen du berriz ere testuaren esanahia.</li> <li>- Hurrengo ezaugarrietatik sei edo sei akats baino gutxiago aurkezten du testuak honako elementu hauetan: kohesio elementuak, deklinabidea, aditzaren komuntadura eta ortografia.</li> <li>- Egitura nahiko argia, behar bezala erreferentziatuta, adierazitako formatuan eta antolatuta dagoen testua aurkezten dute.</li> </ul>
<p>Gainditzera ez da iristen</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lana ez zaio zehazki lotzen "irakaslearen eta eskolaren zeregina" ikuspuntuari. Soziologia, psikologia edo pedagogiaz hitz egitea ez da aski aipatutako ikuspuntuari heltzeko. Lanak zuzenean erantzun beharko lioke honako galdera honi: "zein izan behar luke zuen ustez eskolaren eta irakaslearen zereginak egun gure testuinguru sozialean? Zein zailtasun ditu zuen ikuspegi horrek?". Baina ez dio aurrekoari heltzen, edo oso gutxi.</li> <li>- Lanak ideia solte ugari ditu, baina falta da dena biltzen duen ideia nagusia. Ideia nagusia ez da gai bat ("eskola", "elkarbizitza"...) ez baieztapen orokorra ere ("eskola garrantzitsua da", "irakasleek jakin behar dute gauzak ongi egiten"). Ideia nagusia formulazio zehatza eta landua da, argumentuak, osagaiak, loturak eta nabardurak dituena. Testuak koherentzia falta handia du.</li> <li>- Pasarte asko (lan osoaren laurdena baino gehiago) testuetatik hartu (artikulu, internet, apunte eta antzekoetatik) eta oso modu literalean aldatzen dira informera (itzulpenak, itxurako moldaketak dituzten parafraseatzeak...). Lanean autore desberdinen ideiak erabili behar dira, baina ez modu literalean erabilia. Informazioak zuzena izan behar du, baina beti ere norbere hitzetan adierazita.</li> <li>- Iritziak eta balorazioak ematen dituzte lanaren egileek, baina argumentazio eta zehaztasun falta handiarekin. Ez dute tarterik hartzen erabiltzen dituzten kontzeptuak argitzeko edo zehazteko. Ez dute tarterik hartzen hitz baloratiboak ("ona", "egokia", "beharrezkoa", "txarra"...) azaltzeko eta zehazteko ("irakasle ona" esaterakoan, zer esan nahi du "onak"?). Ez dute tarterik hartzen baieztapen normatiboak argumentatzeko (adibidez, honako baieztapen hau normatiboa da: "irakasleak enpatikoa izan behar du", baina falta du argumentazioa: "zergatik izan behar du enpatikoa?").</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Maiz samarrik galtzen du haria irakurleak, eta zalantzak sortzen zaizkio ulertzen ari ote den. Behartuta sentitzen da testuaren pasarte batzuk behin baino gehiagotan irakurtzera, eta batzuetan haria berreskuratzen du, baina beste batzuetan etenak nagusitzen dira.</li> <li>- Hurrengo ezaugarrietatik zortzi edo zortzi akats baino gehiago aurkezten du testuak honako elementu hauetan: kohesio elementuak, deklinabidea, aditzaren komuntadura eta ortografia.</li> <li>- Lanaren egitura zaindu gabea da: adierazitako formatuan, erreferentzietan eta antolakuntzan nabaritzen delarik.</li> </ul>

1. ERANSKINA: LEHEN JARDUERA FITXA  
(Ikuspuntuak - 4 orrialde)

---

**1. Bakarka, hurrengo galderak erantzun:**

**1.1. Zein da zure ametsetako eskola? (400 hitz).**

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

**1.2. Nolakoa da zuretzat irakasle on bat? (400 hitz).**

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

**2. Taldeka, aurreko galderetatik ideia komunak atera.**

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

**3. Badaude zuen ikuspuntuan gauzatzeko zailak diren alderdiak? Zeintzuk?  
Zergatik dute halako zailtasuna?**

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

**4. Aukeratu zailtasunen artean bi: "eskola idealari" dagokionez zailtasun bat eta "irakasle idealari" dagokionez beste bat.**

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

**5. Fokua jarri: pentsatu bien artean zein nolako lotura egon daitekeen (50-100 hitz).**

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---



## 2. ERANSKINA: BIGARREN JARDUERA FITXA (ideiak eta loturak - 4 orrialde)

---

---

1. Lehengo jarduera fitxako bi zailtasunak kontuan hartuta, zein ideia atera dituzue lagungarri Pedagogia, Soziologia eta Psikologia irakasgaietatik?

Ideiak	Lehengo zailtasuna:	Bigarrego zailtasuna:
Pedagogia		
Soziologia		
Psikologia		

2. Deskribatu ideia horiek. Aipatu zein autore edo teoria dauden horren atzetik.

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---



---

---

### 3. ERANSKINA: MODULUAREN EBALUAZIO-ORRIA

---

- 1) Moduluak aurreikusiak zituen konpetentziak lortu direla uste al duzue? (moduluko konpetentziak DILAN txostenean topatuko dituzue)
- 2) Moduluaren nondik norakoa azaltzen duen txostena aproposa dela uste al duzue? Ezer aldatuko al zenukete?
- 3) Nolakoa izan da ikasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? Zergatik? (Adibidez: motibatuak egon zarete, galderak egin dituzue, tutoretzei probetxua atera diezue...).
- 4) Nolakoa izan da irakasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? (Adibidez: prestutasuna erakutsi dute, suertatu diren zailtasunak kudeatu dituzte, koordinatuak egon dira, komunikazioa erraztu dute...).
- 5) Beste lan mota bat egitea proposatuko zenuke? Zein? Edo egin duzuen lanaren inguruan hobekuntzarik planteatuko zenuke? Zeintzuk?
- 6) Moduluak aurreikusiak zituen konpetentziak lortu direla uste al duzue? (moduluko konpetentziak DILAN txostenean topatuko dituzue)
- 7) Moduluaren nondik norakoa azaltzen duen txostena aproposa dela uste al duzue? Ezer aldatuko al zenukete?
- 8) Nolakoa izan da ikasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? Zergatik? (Adibidez: motibatuak egon zarete, galderak egin dituzue, tutoretzei probetxua atera diezue...).

## 4. ERANSKINA: MODULUAREN LABURPEN ORRIA

Diziplinarteko lana 1: IRAKASLE ZEREGINA. Lehen Hezkuntzako Gradua 1. 2019-2020.

LANAREN URRATSAK	Jarduera-sekuentzia orokorra eta EKOIZKINAK	NORI?	DATA	EBALUAZIOA
<p>AURKEZPENA: Dilanaren helburua, diseinua eta antolaketa azaltzea.</p> <p>ABIAPUNTUA Zer dakigu irakaslearen zereginari buruz? Aurrezagutzetarik abiatuz.</p>	<p>Irakasleek talde desberdinak osatuko dituzte.</p> <p>Irailak 20rako "irakasle funtzio" irakasgaiko irakasleek jakinaraziko dituzte talde hauen partaideak, eta talde fitxak formatu digitalean banatuko dituzte.</p> <p><b>LEHEN JARDUERA FITXA (1): IKUSPUNTUA (4 orr.)</b> - Norbanako idazkiak: Zein da zure ametsetak eskola? (400 hitz) eta nolakoa da zuretzat irakasle on bat? (400 hitz) - Testu indibidualatik atera ideia komunak, taldean. - Zailtasunen azterketa: "Badaude zuen ikuspuntuan gauzatzeko zailak diren alderdiak? Zeintzuk? Zergatik dute halako zailtasuna? - Aukeratu zailtasunen artean bi: "eskola idealari" dagokionez zailtasun bat eta "irakasle idealari" dagokionez beste bat. - Fokua jarri: pentsatu bien artean zein nolako lotura egon daitekeen (50-100 hitz).</p>	<p>IRAKASLE FUNTZIOKO IRAKASLEAK Talde fitxak irakasle guztiei formatu digitalean banatu.</p> <p>HEZKUNTZAREN TEORIA ETA HISTORIAKO IRAKASLEARI Lehenengo jardueraren fitxa pedagogiako irakasleari formatu digitalean entregatuko zaio.</p>	<p>Irailak 20 talde osaketa (irakasleok osatutakoak)</p> <p>Urriak 4 (Lehen jardueraren fitxa)</p>	<p>Irakasle bakoitzak erabakiko du noiz eta nola emango dituen jardueraren fitxen feedbacka. Jardueraren fitxak ez dira kalifikagarriak.</p> <p>Bakarrik amaierako lana kalifikatuko da eta ebaluazio bikoteak kalifikazioaren ardura hartuko du. Horretarako, gidaren eskuragarri dagoen errubrika erabiliko dute.</p> <p>Idatzizko behin betiko txostena aurkeztean, diziplina desberdinetako irakasleek osatutako "ebaluazio bikote kideak" sortuko dira eta beraien ikasleak izandako taldeak esleituko zaizkie, hauen ebaluazioaren ardura hartuko dutelarik. <b>2019/12/19an klaseak eten egingo dira</b> eta ebaluazio bikoteko kide bakoitzak zuzendutako lan taldeen erdiarekin bildu beharko du. Honela, kalifikazioa helaraziko die eta lanaren feedbacka emango die.</p>
<p>OSAGAIK Irakasgaietatik ideiak jasotako irakaslearen zereginari buruz.</p>	<p><b>BIGARREN JARDUERA FITXA (2): IDEIAK ETA LOTURAK (4 orr.)</b> - "Bi zailtasunak kontuan hartuta, zein ideia atera dituzue lagungarri Pedagogia, Soziologia eta Psikologia irakasgaietatik?" - Deskribatu ideia horiek. Aipatu zein autore edo teoria dauden horren atzetik. - Azaldu zein lotura aurkitzen dizkiozuen zuen zailtasunekin. - Bi zailtasun hauen arteko loturak egin (200-300 hitz).</p>	<p>HEZKUNTZAREN SOZIOLOGIAKO IRAKASLEARI Bigarren jardueraren fitxa soziologiako irakasleari formatu digitalean entregatuko zaio.</p>	<p>Azaroak 15 (Bigarren jardueraren fitxa)</p>	<p>Ikasleei behin behineko kalifikazioa feedbackarekin batera emango zaie. <b>Erreklamazioaren bat egin nahi bada, ikasleek ebaluatuta izan diren ebaluazio bikotearengana jo beharko dute 2019ko abenduaren 20an 10etatik 12ak bitartean.</b> Taldeak erreklamazioaren justifikazioa <b>argudiatu</b> egin beharko du, kalifikazioaren desadostasunaren zergatia azalduz. Ebaluazio bikoteak, erreklamazioa dilana osatzen duten irakasle klaustroan adieraziko dute; eta klaustroak erreklamazioa aztertuko du. Klaustroaren erabakia ebaluatutako bikote talde berak jakinaraziko die ikasleei 2020/01/06ko asteen.</p>
<p>INFORME ELABORATUA Ideia propioen eta irakasgaietatik jasotako edukiak kontutan izanik, diskurtso propioa eta koherentea elaboratu.</p>	<p><b>TXOSTENA IDATZITA (6 orr.)</b> - Sei orrialdetan azaldu: 1) Eskola idealaren inguruko zailtasunaren azterketa, 2) Irakasle idealaren inguruko zailtasunaren azterketa, 3) Aurreko bi punturen artean dagoen loturaren azterketa.</p> <p>*Moduluaren ebaluazioa orria (gidaren 3. eranskina) ere beteta gehituko da behin betiko lanaren eranskin moduan.</p>	<p>KOMUNIKAZIO GAITASUNAREN GARAPENKO IRAKASLEARI Behin betiko bertsioa komunikazioko irakasleari formatu digitalean entregatuko zaio.</p>	<p>Abenduak 10 (behin betiko idatzia + 3. eranskina: moduluko ebaluazio orria)</p>	

\*Ikasleek irakasleren batekin dilanaren inguruan hitz egiteko bildu nahi badute, klase orduetatik kanpo izango da, irakasgaien presentzialtasuna errespetatuz.

\* Behin taldeak osatuta, diziplina desberdinetako irakasleek hartuko dute jardueraren ardura, taldearen aurrerapenean laguntzeko. Edonola ere, irakasle guztien laguntza jasoko da prozesuan zehar eta irakasle bakoitzak jardueraren beharrik eta propioak egingo ditu bere irakasgaiaren zehar dilan honetako eginkizunean laguntzeko helburuarekin.